Pamiela etxea

kalandraka

amets egiteko liburuak®

# Kilker isil-isila

Apirilaren 11n eskuragarri





Testua eta irudiak: **Eric Carle**

Itzulpena: **Manu López Gaseni**


Bilduma: Album irudidunak. Kartoi gogorrean egina

Gaiak: natura, animaliak, zomorroak, euskarazko hiztegia. Liburu soinudunak. Denboraren joana. Hazkuntza, transformazioa, emozioak.

IBIC: YBGT1 (Liburu soinudunak eta musikadunak)

Formatua: kartoi gogorra, izkina borobilak | 17,7 x 12,7 cm. | 26 or.

Salneurria: 14,00 €


ISBN: 978-84-9172-359-2


HIZKUNTZA HAUETAN ERE: GALEGOA, PORTUGESA


ISBN: 978-84-9172-359-2


9 788491 723592

**Eric Carleren liburu berri bat euskaraz, kartoi gogorrean egina eta soinuduna. Ikusteko eta entzuteko aparta.**

Hegoak indarrez igurtzita ere, kilker txikia ez zen kantatzeko gai. Eta inork ez zuen aditu haren soinua: ez otiak, ez marisorginak, ez harrak, ez adur-zimitzak. Ezta belardiko beste biztanleek ere, harik eta gau batez, ilargiaren argitan, kilker eme batekin topo egin zuen arte…

Ipuin honetan Eric Carleren ohiko gaietako batzuk ageri dira: natura, denboraren joana, hazkuntza, transformazioa…
Bai eta Eric Carleren proposamen plastikoaren ezaugarri asko ere: kolorea, marra azkarra edo *collage*a. Kartoi gogorreko liburu bikaina da umeei erakusteko zer izen polita duten euskaraz intsektu batzuek. Gainera, bukaeran, sorpresa soinudun ederra dago.

## Eric Carle (1929 -2021)

Estatubatuar hau 70 album baino gehiagoren egilea da. Alemanian, Sttutgarteko Akademie der Bildenden Künste delako arte-eskolan ikasi zuen. 1952an, Estatu Batuetara bueltatu zen, eta han *The New York Times* egunkariko diseinatzaile grafiko gisa lan egin zuen. 1967an, urte askoan publizitatearen arloan aritu eta gero, liburuak ilustratzen hasi zen. Osorik, irudi eta testu, argitaratu zuen lehen liburua *1, 2, 3 to the Zoo* (1968) izan zen; eta haren ondoren, *The Very Hungry Caterpillar* etorri zen. Besteak beste, Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Azokaren Saria, Haurrentzako Liburu Saltzaileen Saria eta Amerikako Biblioteken Elkartearena jaso ditu.

https://eric-carle.com

Egilearen beste liburu batzuk:




13,00 €

ISBN: 978-84-9172-340-0

9 788491 723400




13,00 €

ISBN: 978-84-9172-338-7

9 788491 723387




16,00 €

ISBN: 978-84-9172-357-8

9 788491 723578




16,00 €

ISBN: 978-84-9172-349-3

9 788491 723493




16,00 €

ISBN: 978-84-9172-331-8

9 788491 723318

# Kilker isil-isila


Egun epel batean,
arrautza nimiño batetik
kilker txiki bat jaio zen.

—Ongi etorri! —esan zuen kilker handi batek kantari,
hegoak bata bestearekin igurtziz.
Kilker txikiak erantzun nahi izan zuen,
hark ere bere hegoak bata bestearekin igurtziz.
Baina ez zen ezer gertatu.
Soinu txikienik ere ez.


—Egun on! —egin zuen oti batek burrunba,
airean jira-biraka.
Kilker txikiak erantzun nahi izan zuen,
hegoak bata bestearekin igurtziz.
Baina ez zen ezer gertatu.
Soinu txikienik ere ez.


—Kaixo! —xuxurlatu zuen marisorgin batek,
bere aurreko hankak bata bestearekin marruskatuz.
Kilker txikiak erantzun nahi izan zuen, hegoak bata bestearekin igurtziz.
Baina ez zen ezer gertatu. Soinu txikienik ere ez.

carmen@pamiela.com | Tel. 688 689 403 ▪ 948 326 535 | www.pamiela.com | www.kalandraka.com